

GIG 60

AIXAKO KOKA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2

KALTEBERATASUN-MAILA: 2,25

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Aixako koka Euskadin luzerarik handienetakoa duen lurpeko galeria-sareetako batean dago. Bertako zenbait espeleologia-taldek ustiatzen dute azken berrogei urtean baino gehiagoan, eta oraindik ere topatzen dituzte galeria berriak.

Sarbide handi bat du, arku formakoa, zeina 0,7 km²-ko sakonune baten hondoan irekitzen baita. Handik igarotzen dira erreka aktibo txiki baten urak —baina euri-aldietan bakarrik—.

Barrunbeak oso trazadura labirintikoa du, eta galeria gehienak azpihorizontalak dira. Halaber, maila desberdinak dituzte, eta putzu eta galeria inklinatuaren bidez daude elkarrekin lotuta.

Sarreratik hurbilen dagoen eremuan, bolumen handiko sala eta galeriak nabarmentzen dira; haietan, prozesu klastikoak dira nagusi, bai eta tamaina guztietako blokeek estalitako hondoak ere. Bloke horien gainean, espeleotema-etapa bat garatu da gerora, eta koladen eta estalagmiten adibide ederrak ere ageri dira. Sakonen dagoen sarean, hainbat dimentsiotako meandro ugari aurki ditzakegu, baita kanoiak, galeriak eta pasabide estuak ere, trazadura bihurgunetsuekin. Oro har, sarearen garapenak NNE–SSW norabideari jarraitzen dio nagusiki, haustura lokalaren alde eginez. Sarearen beheko maila aktibo dago hidrogeologikoki. Lurpean zenbait erreka txiki igarotzen dira, eta litekeena da bat-bateko emari-goraldiak izatea, prezipitazio handien ondorioz. Trazadura-saiakuntzen bidez egiaztaturik dago Aixako sarearen eta Erribera Goikoa sorburuaren arteko lotura hidrikoa (7 metroko altitueda itsas mailaren gainetik), Deba ibaiaren eskuineko ertzean.

NOLA BERTARATU

Itziar auzotik abiatuta, industrialdeko gunerik altuenera igo behar da. Handik, hormigoizko pista bat abiatzen da Pagatza baserrirantz. Ibilbidearen erdi-parean, desbideratze bat dago ezkererantz. Puntu horretatik aurrera, oinez jaitsi behar da sakonunearen hondora harik eta bidezidorra topatu arte. Bidezidor hori malkartsu samarra da puntu batzuetan, baina, oro har, ondo zehaztuta dago.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.




Aixa kobako sarrera ikusgarria. Argazkia: Jose Manuel Franco.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X = 553059 / Y = 4791571 / Z = 183



Aixa kobazuloko zeharbide estu bat.

Argazkia: Jose Manuel Franco.